

ERREPUBLIKAREN ALDEKO MOZIOA

Si Se Puede Irun udal taldeak ondokoa planteatzen dio Udalbatzari:

JUSTIFIKAZIOA

Irungo Udalbatzak Errepublikaren aldeko babesa ematea planteatzen dugu antolamendu politikoko sistema hobea delako. Hona Arrazoiak:

-Errepublika da denok Legearen aurrean berdinak garela bermatzen duen sistema; Monarkia, berriz, ez.

-Errepublikak bermatzen du Estatuko Buruzagitzaren hautaketan herritarren parte hartze demokratikoa; Monarkiak, berriz, ez. Herritarrek hautatzean duten ardura publikoa nagusitu egiten da, eta herritarren parte hartze aktiboa bultzatzen da.

-Monarkia ez bezala, erabat indarrean dauden balio batzuetan dago oinarrituta Errepublika: publikotasunaren, laikotasunaren defentsan, herriaren norakoa herriek berek edukitzea erabakitzeke ahalmenean, eta abarretan.

- Errepublika garai batean indarrean egon da gure herrialdean, eta garai hori EGIA, JUSTIZIA ETA ERREPARAZIOAREN zain dago –Monarkia ez bezala-. Beraz, udal kideen ardura da aipatutako aintzatespen publikoa gauzatzea, apustu demokratikoaren esanahiari balioa emanez.

Horregatik guztiagatik,

PROPOSATZEN DUGU

1.- Irungo Udalak Errepublikaren aldeko babesa adierazten du antolamendu politikoko sistema hobea den aldetik.

2.- Irungo Udalak elkartasuna adierazten die altxamendu militarrek eta geroago diktadura frankistaren errepresioak eragindako biktima guztiei.

3.- Irungo Udalak Unidas Podemos-ek, ERCek, EAJk eta Talde Mistoak Amnistia legea aldatzeko egindako proposizioari babesa ematen dio, horrela, frankismoaren krimenak epaitu ahal izateko.

4.- II. Errepublikaren aldarrikapena ospatzeko, aitorpen publiko guztiak egingo ditu Irungo Udalak apirilaren 14an.

SINADURA